

Euskal poesia berriaren teknika zenbait: Teresita Irastortza

LUIS M. MUJICA URDANGARIN
(EHU, Donostia)

Gerraosteko poesiaren belaunaldi gazteenetako baten adibide bat hartu nahirik, Teresita Irastortzaren poesigintzara makurtuko gara. Aukera honek ez du esan nahi antzeko bideak eta balioak egungo beste poeta gaztetan aurki ez daitezkeenik; zorioenez, bide sinbolista eta umotu antzekoa topa daiteke beste poeta zenbaitengan ere. Gu gaur, ordea, gunearen arazoa dela eta, T. Irastortzaren sorkuntza aztertzeraz mugatuko gara¹.

T. Irastortzaren azterketa literarioa egiterakoan bere *Hostoak* poemara hertsiko gara, *Gaia eta gau-aldaketak* izeneko obra albora utziz².

Azterketa hauek hasimasiak baino ez dira izanen, gaiak sistematizazio eta luzadura gehiago eskatuko lukeelako, Lizardi eta Miranderen poesigintza aztertzerakoan egin genuen bezala³.

Gaian sartu baino lehenago, hau esan nahi dugu, Irastortzaren poema honetan badagoela gaztetxoan obran atzematen den akats bat, alegia, eskematismo gehiegikoren akatsa. Gauza batetik bestera errazegi saltatzea, eskematismo gehiegi erabiltzea (ximpletasunaren aitzakitan) errazkeriara joatea izan daiteke. Baita (nahiz hau zilegizko opzioa izan) neurri eta puntutik poesian sistematikoki ihes egitea (euskal poesia gehiena 1960 arte —eta poesia hoberena— neurtuan egin delarik) guretzat errazkeriazko labainkeria izan daiteke. Eraikuntza modernoa eta tinkoa ez dago, nahitana-hiez, neurriarekin desuztartuta (eta, gutxiago, euskarak neurgintzarako eskaintzen dituen erraztasun formalak ikusita). Poesia modernoa Europan, hein handi batean, neurtuan egina dago (adibidez, 27ko belaunaldiaren produzio nagusi bat); bide horretatik, ia beti, ihes egitea errazkeria eta disziplina estetiko-eza da guretzat, nahiz-

(1) Esan behar dugu T. Irastortzak, bere lehen poema zela-eta, Krutwig-engandik kritika gaiztoa jaso zuela. Kritika beti beharrezkoa da, baina kritikak ez dauka tremendista izan beharrik (onerako ala txarrerako). Gure ustetan, orri bat ala bira mugatzen den kritika "tremendistak" ez-objetiboa izateko arriskua dauka, behar duen gunea eta sakontasuna falta zaiolako, askotan.

(2) Gure aipamenak beti original honetatik: *Hostoak*, Caja de Ahorros Municipal de Bilbao, 1983.

(3) Euskal gizon ala literato bati buruz lan bat egiteak ez du ahitzen ikusmira osoa. Batek egina besteak beste alderdi batetik ikus eta azter dezake. Gaztelaniaren esparruan, adibidez, Garcia Lorca-ren poesigintzaz (ikusmira eta tematika desberdinetatik) hogeitaz bat lan kritiko nagusi daude. Berdin gertatzen da Machado, J. R. Jiménez, Neruda, J. Guillen, eta bestetaz. Mugatasun gehiagoz, berdin gerta daiteke euskal eremuan ere.

eta, noski, poesigintza balioztatzerakoan beti barneko hariak eta irudi-munduak garrantzi handiagoa eduki. Hauek ziren, bada, Irastortzaren edergintzan sartu aurretik egin nahi genituen ohartxoak. Poesia neurtuak guregan tradizio handia dauka, eta disziplina jator horretatik ibili dira, ez poeta zaharrak soilik, baita XX. mendeko Lizardi, Lauaxeta, Orixo, S. Mitxelena, Gaztelu, Iratzeder, Aresti (alde nagusi batean), Mirande, etab.

Irastortzaren poesigintza berrian (eta, zehazkiago, aipaturiko poemetan, lehen alditako sorkuntza gainditzen eta aberasten etorri delako) irudigintzak eta mamidura formalak itzal asko jasotzen du. Irastortza ez dabil (gaur ere konstata daitekeen) estetika mespretxatzen duen *esperimentalismo* poetiko hutsaren ildotik. Eta hori hainbeste marginalismo dagoen mementoan positiboan deritzaigu, ezen-eta egungo edergintza marginal baten oldeak maiz estetika trinkoa ito egiten du. Estetikan, noski, arlo aunitz subjektiboa da, baina gaztetxoek, maiz, *ona* "aurrerakoi eta txokanteenekin" uztartzeko arriskua daukate, "txokanteena" (baina disziplina estetiko eta lanketa sakonik gabekoa) "hoberenarekin" nahastea zalantzagarrria baita. Kreakuntza estetikoan "bitxi eta txokanteena" ez da, nahitanahiez, "hoberena". Maiz, "bitxikeria" esperimental hori gauza errepikakor eta antzuetan gelditzen da. *Marginalismo esperimentalista*n murgiltzen den sorkuntza musikalak, poetikoak, piktorikoak "txepelkeriaren" eta ezfuntsaren arriskua dauka, azpian *lanketa*, pazientzia eta disziplina estetiko aunitz falta baldin bada. Eta disziplina estetikoak ez da anakronismoa, seriotasuna, lana eta ederraren bilaketa sakona baino.

1. Irudien teknikak

T. Irastortzaren irudi bildumek argitan uzten dute bere poesigintzaren kera "erdi-surrealista" eta molde irrazional bortitza. Bertan ikuskizun-irudiak, metaforak, parekaketak, sinestesiak ugari dira. Metaforen eremuan tipologia aunitz dago; adibidez, A B denean ("muino gainean ilargia (A) gazta (B) da"; B A-tik sortzen denean ("zelaiaren (A) danborean (B) zaldia harrapaladan" (irudi hau hurbiletik G. Lorca-k "El jinete se acercaba/tocando el tambor (B) del llano (A)" dionean). Beste batzuetan metafora oposaketa hutsean egon daiteke. Adibidez, "txoriaren eztarria (A) likido kizkurra (B)". Bi elementuak alboezarrita daude, inolako loturarik gabe. Baita mintzatuak gara beste lan batean C tipologiazko metaforez⁴.

Metaforetan ez bezala, konparaketetan elementu parekatzailea presente egon ohi da (eta elementu horiek izan daitezke: *antzo*, *gisa*, *iduri*, *bezala*, *bailitz*, etab.). Lizardik, adibidez, *iduri* elementu parekatzailea aunitzetan erabiltzen zuen; *iduri* hori (*irudi*-ren metatesia delarik), ordea, ez da Lizardik asmatua, lirika zaharretako kantetan ere azaltzen delarik⁵.

Irudien eremura etorririk, eta maila *ezrealean* sartuta, A-ren oposizioan B-ren ondoan beste irudi ezrealean multzoak egon daitezke, alegia, A = B, C, D, E, F taldeak. Horko B, C, D, E, F irudi-multzoak maila ezrealekoak dira, noski. Tipologia hau aztertzerakoan, funtsean, C. Bousoño-ren urratsak jarraituko ditugu.

Metaforaren eremuan ematen den fenomeno aunitz metonimikoa da, metonimia-
ren bitartez (eta elisiozko prozeduren medioz) "oso" *atal* batez adierazi ohi dugu,

(4) Ikus gure *Lizardi-ren lirika-kideak*, I, 88 ond. C. Bousoño, *Teoría de la expresión poética*, op. cit. 82 ond.

(5) Tradizioko lirikatik kasu batzutarako ikus gure *Euskal lirika tradizionala*, IV, 569-598. or.

eta, alderantziz, "atala" *osoa*-ren bitartez. Hemengo kontzeptuak kontutan edukirik sar gaitenez "Hostoak" poema nagusiaren orrietan barrena irudi adierazgarrienak atzematera.

Hona lehenengo kasua:

Zure mototsak (A), zuhaitz usain (B), erretsin hots (C)⁶.

Hemen alboezarrita A eta B, C mailak iruditeria bejetalaren ildo sugerigarrian.

Poema berean beherago:

Errepara zaituz:

ilea (A) buruatzean ixtean (a¹)

aldaizearen miztoa (B) bera litzaz josiko bazenu lez (b¹),

lainoen hatsak (C) atzekoz aurrera jazten dituzu (c¹),

kotoi usaina ketara jausten (D)⁷.

A = B (b¹), C (c¹), D

Z (emozioa)

Elementu "irrazionalak" (ezrealak) hemen *aldaizearen miztoa* (B), *lainoen hatsak* (C), *kotoi usaina* D.

Hona beste adibide bat:

Ahosabaiean (b¹) katiatu zait (B)

egarria, (1)

arratsari ertzetan (c¹)

argi izpiak (A)

txintxetatzean;

ozpinezko ezintasunez (d¹) zetorkidan,

asun azkura amilgaitzez

azpiak ozpin (D),

bizi izpi

zure ahosabaiean... (b¹)⁸.

A (*egarria*) (*argi izpiak*) = B (*katiatu*) b¹ (*ahosabaiean*), C (*txintxetatzean*) c¹ (*arratsari ertzetan*), D (*azpiak ozpin*) d¹ (*ozpinezko ezintasunez*).

Z emozioa pasarte poetiko honetan *ezinak* eta *garrastasun* existentzialak bizian sortzen duen *keru gaitza* da.

(6) "Errepara zaituz", op. cit. 11. or.

(7) Ibidem.

(8) "Ahosabaiean katiatu zait", op. cit. 15. or. Mintzo poetiko honen zertzelada onirikoak, ilogikoak, etab. hobeto balioztatzeko eta ausnartzeko hona V. Aleixandre-ren irudi-multzo bat: "De un gris enérgico suavizado en las sienes", "Un rosa romano", "los ojos... en aquellas *cocidas* calidades daban una luz negra, *carbón* para quemar ensueño", "un cielo mezclado con azul turbio, con indescifrable gris de arcano", "qué fresco vientre, donde su curva oculta/ leve musgo de sombra romuroso de peces!", "como un árbol que depone su luto rumoroso,/ su mate adiós a la tristeza", "llegaste alegre, /ligeramente rubia, resbalando en lo blando/del tiempo". Iruditeria hau, dudarik gabe, espainiar poesiak XX. mendean jasan duen eragin *irrazional* gaitzaren ildotik dabil. Hemengo aipamen gehienak "Los encuentros" eta "La destrucción o el Amor" poemetatik. Ikus Concha Zardoya, *Poesía española contemporánea*, Ed. Guadarrama 1961, 437-598. or.

Goazen beste pasarte bat ikustera:

Lermaturik (A)
 lumero atzeraturen (b^1) baten belenoa (B)
 heldu zait (c^2)
 ilargiaren limoitasun garratzak (C)
 heldu nau (c^1)
 lehertezinaz
 lermaturik (A)⁹.

A (lermaturik) = B (belenoa) b^1 (lumearo atzeratuak), b^2 (belenoa heltzen bezala), C (limoitasun garratza) c^1 (limoitasuna heltzen edo atzematzen gisa)

$$A = B b^1, C c^1$$

Z (emozioa)

Hemengo emozio-sentipena (Z) sentsazio existentzial batzuen *mikaztasuna* da, oroitzapen galduen urrats apaletan galdua.

Ikus dezagun beste adibide eder bat, irudi kosmikoak pasarte subjektibo batean ahokaturatuta:

Zure gorputzean (A) hustuko dut
 gauari osturiko (b^1) izar katea (B),
 banan banan
 kolkoratuko dizkizut
 neure usteak (C), esperantzak (D)
 baina
 zu ez bazina
 konpitzak (e^1) konpondu beharko nuke
 bizitzaren koilarea (E)
 kolore gutzietako konpitzak (f^1)
 koloregabeko zuloa (F)¹⁰.

Elementu errela (A) (zure gorputza) = Elementu ezrealak B (izar katea), C (kolkoratzen diren usteak), D (kolkoratzen diren esperantzak), E (bizitzaren koilarea) e^1 (konpitzak), F (koloregabeko zuloa) f^1 (kolorezko konpitzak).

(9) "Lermaturik", op. cit. 17. or. Hurrengo pasarte konplexuagoa da: "Bai hatzamar haundiak (A^1) dituela / zure ausentziak (B) / eta hortz ortz azkarrak! (A^2) / Bai ahula nire bizkarra (A^3), / ttipia gorputza (A^4) / zure ausentzia (C) gordetzean (C^1), / goizetan eta / lehengo gaua (E) jeikitzean (e^1) / badakit / ez dituzula argi izpiak (F) behatz huntz (A^5) itzaliko (f^1). Hemen maila erreala bost elementutan $A^1, 2, 3, 4, 5$ (hatzamar, hortz, bizkarra, gorpua, behatz) hedatzen den katea, eta maila ezrealean (irrazionalean) *ausentzia, gau jeikia, argi izpiak*... Poema hau 21. or.

(10) "Zure gorputzean hustuko dut", op. cit. 19. or. Hona beste adibide konplexu bat ere: "Espero/zaitut (A) / sari guztiak/saretzen dituen (b^1)/zorotasun zoruan (B^1) isladaturik, /hiltzorian (C); /gauek gaitzen dituzten (d^1)/ gaitz gaineko /gonapean (D), /gozotasuna gazitatik/ gauzatuz, (E) /orduak ardotan (F) / ordituz (f^1) /espero zaitut (A)" ("Ezin zain egonik", 25. or.) Hemen A maila errealean eliditutako *mailalea*, "zaitut" delakoan azaltzen dena; maila ezrealaren eskema da = B (b^1), C, D (d^1), E, F (f^1). Ondorengo pasarte poetikoa, nahiz-eta olerkarisa mintzo simbolikotan ibili, ez da irrazionalitate handikoa, ezen-eta "makinapean gorderiko hitzak" hitz *idatzi* gisa uler daiteke; "kitarra harietako hautsa" ere hauts *fisiko* antzo ere interpreta daiteke; baina, noski *irrazionala* da "hautsontzietako irri eraila" (sonrisa asesina la de los ceniceros). Hona testua: "Pilaturik daude /kitarra harietako hautsa, /hautsontzietako irri eraila, /idatzi makinapean gorderiko hitzak, /hutsartean, /hats hotsetan" ("Pilaturik daude", 27. or.).

$$A = B (b^1), C, D, E (e^1), F (f^1)$$

Z (emozioa)

Hurrengo pasarte poetikoan ere nabaria A maila errealetik maila ezrealetera (B, C...) dagoen jauzi irrazionala:

Denboraren jarioa (A)
 tanta (B¹)
 guardabiziaren (1) bizkar irristakorrean (D¹)
 Denboraren jarioa (A)
 tantan (B²)
 kotxeko leiho itxiak
 gorde dituen (C²)
 itxaropenetan (D²)
 Denboraren jarioa (A)
 tente (B³)
 zuhaitz lerdnaren
 itzalak lehortu duen (C³)
 izerditan (D³)¹¹.

Irudien jauzi kaulitatiboak aski gardenak dira denboraren joana (A) (hemen jarioaren irudian) *likidoa* bailitzan tantaka (B) ezertzean (ala zutunik B³ kasuan), eta kotxearen itxaropenak eta zuhaitz-itzalaren lehorketak (D) tartekatzean.

Beraz, A mailan denboraren *joana* = B mailan *joan* hori *tantaka* (ala zutunik) dagoen jarioa da, C mailan genitiboan ala erlatibozko perpausan sostengatutako irudiak, D mailan erlatibo ondorengoak.

$$A = B^1, B^2, B^3, C^1, C^2, C^3, D^1, D^2, D^3$$

Z (emozioa)

Hurrengoan iruditeria testuinguru kosmikoan txertatzen da:

Izarrak (A) inausi (B) nahi zenituen
 ordulari orratzak orraztuz (c¹)
 erraztu, (C)
 minutu mingainaz miaztuaz (d¹)
 miatu (D)¹².

Hemen ere jauzi kualitatiboak A mailatik (izarrak) B, C, D mailetara, ezen eta izarrak (maila erreala) zuhaitzak gisa inaustea "irrazionala" baita, eta berdin erloju gisa erraztea (C maila), ala minutu-mihiez miatua (D maila) izatea.

$$A = B, C (c^1), D (d^1)$$

Z (emozioa)

(11) "Denboraren jarioa", op. cit. 33. or.

(12) "Izarrak inausi nahi zenituen", op. cit. 35. or. 41. orrian beste adibide hau: "Sentimendu entzun gaitzak (B) / noten barnean (b¹): / biolinaren kajaz (c¹) / eten ezinezko malkar jarioak (C) / sentimendu entzungaitzak (B) / noten iraupenean (b²). Hemen eskema hau atzematzen dugu: (maila eliditua edo NI pertsonala) = B (b¹) (b²), C (c¹).

Poematxo honetan A mailak lau lekutan adierazpen bera ($A^{1,2,3,4}$), eta irudi “irrazionaletan” honelakoak: “emakumeen sabela izarrez betetzeko”, “lehoi gosetien gose tximatsua orrazteko”.

Pasa gaitezen hurrengo testura:

Zatoz nirekin (A)
 ibaiek isaladaturiko eternitate
 iheskorretik, (b^1),
 zoko, bazterrak miatuz (b^2)
 basamortu-ertzen bila (B),
 ilargiaren aurpegi izkutuan sorturiko
 adaxkatik (c^1)
 hega berrion eta
 haga zaharren laguntzaz, (c^2),
 agortzen ez den lehorte
 barru barrutik lehertzera (C)¹³.

Perpau luze honetan, beste askotan bezala, alde errealak (A) eta ezrealak (irrazionalak) elkar saretuta daude, gurutzaturik. Saredura horiek ez dira norabide berdinean ematen, nerbatura bihurrietan tartekatuz joaten baino. Mintzo poetiko modernoan, beraz, surrealismoaren katea zeharo konplikatzen da, kateamenduak beste *sub-kateetan* adarkatuz. Kasu honetan maila erreala eliditutako “zatoz nirekin” aditzaren ZU pertsona da; gero pertsona horren predikamenduak norabide ezrealan doaz (“ibaiek isaladaturiko eternitate iheskorretik” (b^1) “basamortu-ertzen bila” (B), “ilargiaren aurpegi izkutuan sorturiko adaxkatik (c^1) “agortzen ez den lehorte /barru barrutik lehertzera” (C).

A = B (b^1, b^2), C (c^1, c^2)
 \ /
 Z (emozioa)

Irastortzak, bestalde, asko maite du bere olde sinbolista-surrealistan arlo somatikotik ateratako irudiak bilbatzea, elementu psikologikak eta somatikoak nahasian txertatuz. Adibidez, “pentsamentuak ... ile-adatsetatik jiraka” adieraztea joku hori egitea da. Aplikapen bera min somatikoei dagokienez (“baita hari ere minak”). Hona testua: “pentsamenduak (A) biraka (B) hasi zitzaizkion /baita hari ere /minak (A),/ezpain-estuturik (b^1)/ile-adatsetatik (testuak *ile, adatsetatik* ipintzen du) jiraka” (B)¹⁴.

A,A = B,B (b^1)
 / \
 Z (emozioa)

“Ezpain-estuturik” irudia bitxia eta jatorra gertatzen da sena “exozentrikoz” hornitua dagoelako, herri-hizkeran, tipo “ezpain-estua” pertsona urduri-nerbiosoa bati deitzen baitzaio. Z emozioa, berriz, kasu honetan gozadura somatikoan bilduriko amodiozko atsegina izan daiteke.

(13) “Zatoz nirekin”, op. cit. 53. or.

(14) “Lore gainean leku egin zion”, op. cit. 55. or. Antzeko bidetatik beste hau ere: “Gauaren hasieran/lantokietako sirenotsek lehen nagiak ateratzean, /zenbaitek azken egiak ardotara isurtzean, /askok betiko egunaren eztarria /nabari ez zelarik; /gauaren hasieran” (“Gauaren hasieran”, 57. or.) Guztiz irrazionala da, noski, “azken egiak ardotara isurtzean”, “egunaren betikotasunari /azken maratila jasotzean” (azken

Sinbolismo bera ager daiteke paisajismo umotu baten andanan, baina sinbolismo hori ez da hain gaitza eta surrealista izanen kasu batzutan; horietan bisemiazko kerak, olde "irrazionalak" baino, bortitzagoak izanen dira; beraz, bisemia paisajistikoa lortzeko ez da beharrezkoa bide oso "irrazionalatik" ibiltzea (adibidez, A. Machado-ren kasuan bere mintzo poetikoa ez da oraindik 27ko belaunaldiarena bezain gaitza eta bihurria "irrazionalismo" sinbolikoaren eremuan).

T. Irastortzak "Paisaia" izeneko poeman eskaintzen digun paisajea ez da koadro hain surrealista gune batzutan; adibidez, makalak zerumugan *akuilu* gisa ezartzea, ala ibai-bizkarren ispilua euren *eskuz* hornituta deskribatzea. Poema horretan, ala ere, ihesketa garbiak mintzo surrealistago batera (kasu, "ur almidoztuak" dionean). Beste paisajismo gozo eta erraz baten adibideak lirateke: "Erreka-ura /hodei beltzen hondakin /nigar-unetan...", "basoak, koloretako bertso eginik", "hosto hori, gorri, eroriak/ zama eta bizi xingurrien harat-hunetean"¹⁵.

Poemaren soinean, batz bestea, irudiak malguki doaz: *Makalak* (A) *akuilu* (B) paisajea, *erreka-ura* (A) *fereka*¹⁶ *losintsu* (B), *basoak* (A) *koloretako bertso* (B).

Ikuspen sinbolikoetan maila irudikatua beste egituretan ere adieraz daiteke. Adibidez, C. Bousoño-k J. R. Jiménez en "El cual lobo hecho oveja, temblorosa y perdida /volvía por el campo, balando, mi amargura" pasarte poetikoa egitura honetan eskaintzen digu: A mailari (*amargura* delakoari) E-ri dagokiona egotzen zaio, E hori maila irudikatua delarik, hots, *ardia*; horregatik "*balando*, mi amargura"). Joku guztiok profitaturik, Bousoño-k formula hauek ere proposatzen ditu:

A [= B = C =] Z emozioa kontzientzian

E [= D = C =] Z emozioa kontzientzian

B taldeak (b¹, b², b³, etab.) A-ren (maila errearen) kualitateak adierazten ditu eta Z adierazpen sinbolizatua eta emozioa da; Z taldeak, berriz, E-ren kualitate ezrealak espresatzen ditu. Z, aldi berean, E-ren (maila ezrealaren) emozioa ere bada. Honela ZA eta E-ren emaitza litzateke. A-tik datorkiguna logikoa eta erreala da, eta E-tik datorkiguna, berriz, ezkontzientea eta "irrazionala"...

Irudiak surrealistagoak diren heinean sentsazio estetikoak ere bizkorragoak, oparoagoak eta "gutxi gorabeheragoak" bilakatuko dira. E maila gorpuzten eta mamitzen doan eran "ikuskizun irudikatua" bereziagotu egingen dira.

Gure olerkarisarengana itzuliz, eskema berriaren arabera, azter dezagun hurrengo adibidea:

Maitearen belar adatsak
belarri atzean...
Musika kutxaren zisne dantza,
mahai gaineko telazko loreen
naturaltasuna,
maitearen musu eta karizien
osin sakona,

irudi hau, nolabait, euskal etnologian errotutako adibidea dugu) adieraztea. 59. orrian ere honelako irudi ezlogikoak: "Tristura... poztu beharrez *pizatu*", "egun/belaun ilun/izar biztuak bezten dituen!", "arria hodeiz inguratutik /lehertezina!".

(15) "Paisaia, op. cit. 65. or.

(16) Cfr. C. Bousoño, *Superrealismo poético y simbolización*, Ed. Gredos 1978, 49. or.

sarrerako ispiluaren
 begiratze gardena,
 gardentasun deikorra,
 dena
 triste,
 ezer
 poeta hiltzean¹⁷.

Poetisak (*olerkarisak*, nahi baduzu) hemen Dámaso Alonso-ren "Cuando murió el poeta se quedaron tristes todas las cosas pequeñas que él cuidaba" glosatzen du, ideia nagusia iduri-sorta bereziz bilduz. Irudi hauen irrazionalitate estetikoak (eta onirikotasuna ere) intentsitatez (bortiztasunez) desberdina da. Adibidez, "ispiluaren /begiratze gardena" irudia ez da ileadatsak "belar" gisa belarri ostean ikustea bezain ausarta eta ezohizkoa.

Goiago aipaturiko eskema *berria* jarraituz A mailan "lorearen hostopeko / goiztantak" ipiniko genituzke, eta B-ren eremuan "irristakorrak" epitetoa. Berdin, A mailan "telazko loreak", eta B mailan "naturaltasuna" A-ren kualitate antzo, eta, berarekin "dena triste" delakoa, "triste" hori A-ren B kualitatea ere delarik.

E maila *ezrealean*, berriz, "belar adatsak" ezarriko genituzke, baita "musu eta karizien /osina", "sakona" epitetoa hor E-ren D kualitate ezrealak delarik. Era berean, E bezala "ispiluaren begiratze" delakoa, ezen-eta ispiluak propioki ez baitezake begira (hortaz, hemen ere maila ezrealean gabilta), eta E-ren D kualitate ezrealak "gardena" epitetoa da. Bi planu horien emaitza Z emozioa da, hots, A eta E-tik jariatzen dena. Z da irudikatua, eta A eta E-ren ondorioa. Irastortza-ren poema irakurririk, sorgintasunez bilduriko sentsazio ituna edo tristea gelditzen zaigu, poetaren heriotza dela-eta.

Beraz eskema hau eskaintzen zaigu:

A [= B = C =] Z emozioa kontzientzian

E [= D = C =] Z emozioa kontzientzian

Pasa gaitzen beste pasarte poetiko batera:

Zenbat pexkixa
 begi dardartietan
 lehen esku hartzeak
 epelgintzan,
 zenbat argi ziri
 zori ezpainetan
 ilargia okotz tartean
 gal zedin...¹⁸

Pasarte honetan nahastekaturik irudi somatikoak ("begi dardartietan" "zori ezpainetan") eta kosmikoak ("ilargia okotz artean"). Mundu hau ere aski onirikoa da, irudi surrealista oro den gisa.

Eskema tradizionalen $A = B(b^1, b^2), C...$ gisako emaitzak. Maitasunezko ebokazioak hemen bi planutan saretzen dira, somatismoaren elementu gehienak irudi "irrazionaletan" endreatuz (*begi/pexkixa, esku/epelgintza, ezpainak/argi-ziria, oko-*

(17) "Komuneko lorearen hostopeko", op. cit. 69. or.

(18) "Zenbat pexkixa", op. cit. 73. or.

tz/hilargia). Beraz, elementu somatiko orori (eta elementu horiek zerbait *erreal* dira A gisa hartuta) korrespondentzia E mailan. Mintzo sinbolista eta oniriko honetan klimax garaia edo gailurra, agian, “ilargia okotz tartean /gal zedin” delakoan (adierazpen guztiz irrazionalera iritsiz). Honela A-k (alde somatiko eta erreala) eskema ohizkoan B elementu (ezrealak) lituzke:

- A *begi* (a^1 dardartiak) = B *pekkixak* (irudi psikologikoa)
 A *esku* = B *epelgintza* (irudi existentzial-psikologikoa)
 A *ezpainak* = B *argi-ziri* (irudi kosmikoa)

A (a^1) = B, B, B
 \ /
 Z (emozioa)

Eta giltzazko eskema-eredua harturik beste hau:

A [= B = C =] Z emozioa kontzientzian

E [= D = C =] Z emozioa kontzientzian

Azter dezagun hurbiletik beste pasarte labur eta adierazgarri bat:

Irekia zure itzalaren atea,
 erraina itzalia
 gure egunen haria etenik
 bakartatera kateatua
 bakartatean!¹⁹

A mailan *atea*, B *irekia*, A-ren kualitate erreal gisa; E mailan (maila ezrealean) *itzala* (itzalak ez baitauka ez *aterik* ez leihorik). A mailan, berrito, *errainua* eta *itzalia* B bezala (A-ren kualitate erreal gisa). Hala ere, “erreinua itzalia” elementu sinbolizatu antzo ere uler daiteke²⁰, olerkarisa bertan *amodioaren* egiaz (elementu erreal eliditua denaz) mintzatzen ari baitzaigu. Hirugarren lerroan “gure egunen haria etenik”, bertan A (*egun*) = E (*haria*) D *etenik* (azken hau elementu ezrealaren kualitate gisa). Mintzo hau “irrazionala” da, noski, egunak ez baitu ez *hari* eta ez *lokarri* fisikorik; baina, pasartean elementu zenbait A gisa interpreta daiteke (hots, *atea*, *errainua*, *eguna* “amodioaren” karakterizazio bezala). Eta, azkenik, E (*bakartatea*, egoera existentziala) eta D *kateadura* (E-ren kualitate erreal gisa, bakartatea ez baidaiteke *kate* batez lot.). Z emozioa, berriz, A (B kualitatez) eta E (D kualitatez) mailen ondorio bezala sortzen da. Emozio hori kasu honetan *amodioak* suposatü duen transposizioa edo aldaketa animikoa izan daiteke.

Har dezagun, azkenik, hurrengo kasua:

Iritsiko naiz
 orri hauetan neure minak irristatuz
 gero,

(19) “Irekia zure itzalaren atea”, op. cit. 75. or.

(20) Esan beharrik ez dago analisi honen egitekoan, irudi “irrazionalen” esparru konplexuan dihardularik, interpretapena, batzutan, anbigua dela, aztergai den mundu oniriko eta sinbolizatuaren izaera bereziagatik. Horregatik, interpretazioaren aldetik irudi edo pasarte batek irakurketa *desberdin* zenbait eduki dezake, baina maila *erreal/ezrealak* analisisan, gehienetan, atzemangarri gertatzen dira. C. Bousoño-k ere ohar berbera egiten digu gaztelaniazko testu zenbaiten aurrean.

partxisean galduriko
 egunak sorbaldan,
 ilunabarrean
 sartaldeari irekiriko
 zauri ateetan zehar²¹.

Hau irakurrita V. Aleixandre-ren pasarte poetiko ezagun eta argigarri bat dator-kigu gogora testuak duen keru kosmiko-onirikoagatik:

Mientras tus pies remotísimos sienten el beso postrero del poniente,
 y tus manos alzadas tocan dulce la luna,
 y tu cabellera colgante deja estela en los astros²²

Hemen, irudi somatikoen bitartez, ikuspegi kosmiko-oniriko bat eskaintzen zai-gu, beraz, *pies* eta *poniente*, *manos* eta *luna*, *cabellera* eta *astros* uztartzen ditu, irakurlearengan halako emozio kosmiko bitxia sortuz. Irastortza-ren testua askoz apalagoa da, baina iruditeria antzeko ildoan doa:

egunak/sorbaldan
sartaldeazauria

Pasartea hurbilagotik ikusirik, planu hauek: A (*iritsiko naiz*, *maitalearen* aipua elidituz), E (*horri hauetan*) D (*minaz irristatuz*), E-ren karakterizazio edo kualitate gisa. Berririo A (*iritsiko naiz*, eliditua) E (*egunak sorbaldan*, maila guztiz ezreal), E (partxisean *galduriko*, E-ren karakterizazio *kualitatibo* antzo), eta azkenik A (*iritsiko naiz*, berririo eliditua) E (*zauri ateetan zehar*) D (*sartaldeari irekiriko*, E-ren azken karakterizazioa eskainitako pasartean). Vicente Aleixandre-k "beso postrero del poniente" dio, eta Irastortza-k "sartaldeari irekiriko /zauri ateetan zehar". Bietan iru-diaren ardatzak aski hurbil. Batak (Aleixandre-k) elemendu kosmikoak (*poniente*, *luna*, *astros*) *handitasunezko* Z emozio berezia sortzeko, eta besteak (Irastortza-k) gertakizun *existentzial* bortitz baten inpresioa emateko (ez ahaz "Hostoak" poema-liburuan *udazkena* eta *heriotzea* dabilzela azpigi, aunitzetan). Beraz:

A [= B = C =] Z emozioa kontzientzian

E [= D = C =] Z emozioa kontzientzian

Bertan Z emozioa interpreta dezakegu *maitalearen* etorrerak sortzen duen amodiozko gertakizun existentzialaren egoera *berezi* bezala.

Emandako testuek guk hainbestetan baietsitakoa konfirmatzen dute, alegia, euskararen eremuan "irrazionalismo" estetiko indartzen etorri dela Mirande ezke-roztik, baitipat, eta olde hori bortitzagoa dela, dudarik, gabe, 1975 urtea ondoren.

2. Gainezarketak edo superposizioak

Miranderen poesigintza aztertzerakoan gainezarketez jardun ginen, eta besteren artean, *egunezko*, *denborazko*, *egoerazko* eta *metaforazko* gainezarketa-motak aztertu genituen²³.

(21) "Iritsiko naiz", op. cit. 77. or.

(22) V. Aleixandre, "El poeta", *Sombra del paraíso* poema nagusian.

(23) Luis M. Mujica, *Mirande-ren Poesigintza*, II, 66-70. or.

Mintzo poetikoaren kerak konplexu eta gaitzagoak bilakatzen diren eran barne-sa-reak ere bihurriagoak gertatzen dira, eta barneko saredura horiek (eta irudi pilaketak) arakatzea aztergai suertatzen da. Bousoño-k Alexandre-ren poesigintzaz aritzean dio: "Esta arborización de que hablo es tan connatural a las modernas figuraciones que no podemos considerarla como elemento barroquizante de ellas, aunque sí como algo complicador de su estructura externa. Diríamos entonces que las figuras de lenguaje alexandrinas son "naturalmente complejas"; aunque su misma esencia les prohíbe la simplicidad".

Beraz, soiltasun-eza da irudi "irrazionalen" egitate bat. Estetika dena konplikatzen eta barnesartzen etorri da (zama emotibo bortitza gaitzagoak lortzeko). Hona V. Alexandren zati berezi bat:

Oh, estrellas mías, vino celeste! Dadme toda vuestra hermosura, dadme vuestros bordes lucientes.
Mis labios saben siempre sorberos, mi garganta se enciende de sapiencia, mis ojos brillan dulces.
Toda la noche en mí *destellando ilumina* vuestro sueño, oh dormidos, oh muertos, oh acabados²⁴.

Hemen jalgi den iruditeria maila ezrealean mamitzen da, ezen-eta *izarrak* (A maila erreala) *ardo* gisa (B maila ezreala) aurkezten dira, eta, ezkoherentzia hori onartuta, ondoriozko koherentzia bat ematen da, alegia, *izarrak isuri* egiten direla (C maila ezrealean) ("Mis labios saben siempre sorberos"). Mirandek ere antzeko zerbait egin zuen "zuen begi-aintziretan /ezinbertzez gainbetheak /hondatzen naiz, ithotzen naiz" zioenean. Bertan *begiak* (A maila) laku edo aintzira antzo interpretatzen ziren, eta, gainezarketa hori eginda gero *begiak urgai* edo *likido* gisa (B maila) hartzera eta beraietan (b¹) *itotzera* zetozen.

Orain igaro gaitzen Irastortza-ren poesiarra, berriro, gainezarketa horiek atzematera. Gainezarketaz edo superposizioez mintzatzean ez ahaz emozio poetikoa aztertzerakoan desplazamenduen edo deslekutzeen fenomenoetaz esandakoak. Emozio berrietara iristeko poetak irudi zenbait bere lekutik atera ala albora dezake. Alboratze horiek irudimenaren mundu sorgin edo aztian soilik egin daitezke. Mirandek, adibidez, estankeko igelak *ilargia jaten* ipintzen zituen, hilargiaren islada uretan ezrealitatearekin nahastuz. Hor desplazamendu garbia dago, eta tokizkoa edo gunezkoa gainera, ezen-eta hilargia ez baitago lakura (aintzira) eroria, ortzean baino, bainan hilargiaren ur-islada erorketa fisikoa gisa interpretatzen da Miranderen poesian ("Aintziko ure-rat/ilhargi-laurden bat erori zen.../Igelek jan dute, igeltxo igeldariak"), eta, logikoki (baina auresuposatzen den *deslogikaren* barnean) igelak estankeko edo lakuko hilargia *jaten* dute.

Gainezarketan arloan ere iruditeriaz esaten genuen gauza bera baiezatu behar dugu, alegia, honetan irrazionalismo bortitza (gutxi gora-behera) 1975 ezkerotik ematen dela, eta 30eko gure olerkarien belaualdiak eta gerraoste hurbilekoak (S. Mitxelena, Gaztelu, Zaitegi, Monzon, etab.) sospetxatu ere ez zutena gerora ohizkoa egiten dela, zorionez, gure artean.

a) Gunezko gainezarketak

"Gunezko" (espacio) gainezarketak pasarte poetiko batean *tokiaren* norabidean ematen dira, eta maila desberdinen pilaketa-ondorioak dira. Pilaketa horiek, noski, *gunearen* esangura espresiboan ematen dira.

(24) V. Alexandre, "Los dormidos", *Sombra del paraíso* poema nagusian.

Hona adibide bat:

Zure gorputzean hustuko dut
gauari osturiko izar katea,
banan banan
kolkoratuko dizkizut
neure usteak, esperantzak...²⁵

Kasu honetan “gauaren” norabidean bi kontzeptu dimentsional dabiltz maitea dela-eta, bat maitearen *gorputz* edo *soin* espaziala, eta bestea izarrez beteriko ortzea. A gunea (maitearen soina) B gunez (izarrezko ortzez tartekatua da, bi maila espaziala ezarriz pasarte poetikoan). Irudi horien Z emozioa *sorgintasunezko* sentsazioa da. Beraz, maitearen gune somatikoan (gorputzean) emango den katea *izarrezkoa* izanen da. *Izar-kate* hori, aldi berean, maitasunezko egoera baten usteon eta esperantzazko sinboloa da.

b) Denborazko gainezarketak

Goian *gunearen* eremuan ematen zena orain *denborarenean* eskainiko da, maila desberdinetan kokatuz eta elkar-saretuz. Bertan *ordezkatzaile/ordezkatu* elementuak atzeman beharko dira, adibidez, *oraina* eta *geroa* nahastekatzen eta gainezartzen direnean, *oraina geroan* ezarriz, ala *geroa orainean* interpretatuz, eta berdin (bere kasuan) *iraganari* edo *joanari* dagokionez.

Bai hatzamar haundiak dituela
zure ausentziak
eta hortz ertz azkarrak!
Bai ahula nire bizkarra,
ttipia gorputza
zure ausentzia gordetzean
goizetan eta
lehenengo gaua jeikitzean
badakit
ez dituzula argi azpiak
behatz puntaz itzaliko²⁶.

Hemen, lehen esan dugunez, “gune” (hatzamar) eta “egoerazko” elementuak tartekatuta kontsidera daitezke, ezen-eta *ausentziak* “hatzamarrak” dituela esatea ez baita arrazionala edo logikoa.

Bigarren zatian, berriz, “denborazko” aldi desberdinen gainezarketa atzeman daiteke. Hor *argi-izpiak* bi memento dauzka distira zabaltzeko, eta, bestalde, “behatz puntaz” itzaltzeko. Denborazko superposizioa “goizetan eta lehenengo gaua jeikitzean”.

Beste kasu batzutan, “oraina” *geroa* gisa interpretatzen da, adibidez, itxaropenaz edo esperantzaz mintzatzen denean (eta hori *denborazko* gainezarketa egitea da, oraindik *heldu ez dena* soilik espero baidateke, eta ez, dagoeneko *lorturik* dena).

(25) “Zure gorputzean hustuko dut”, op. cit. 19. or.

(26) “Bai hatzamar haundiak dituela”, op. cit. 21. or.

c) Egoerazko gainezarketak

Egoera, noski, situazio gisa ulertzen dugu, eta delako egoera fisikoa, psikologikoa, emozionala, sentimenduzkoa, existentziala, etabar izan daiteke. Beraz, egoera errealak (A maila) eta ezrealak (B maila) gainezarketak suposa ditzakete, adibidez, B egiazkotzat (errealizat) eta A ameskotzat (ezrealizat) hartuz.

Lehenengo pasarte honetan gainezarketazko interpretapenak egin daitezke:

Zertarainoko tristura
azken sokan
poztu beharrez pitzatu,
poztu,
poztu beharrez behartzen gaituna!²⁷

Hemen tristura (pozaren ordezt) *poztu/pitzatu* dela esatea gainezarketazko mintzoa erabiltzea da. Baina superposizio gardenagoak hurrengoan:

Emaidazu
zeuretik,
zeure plateretik
behar dudan indarra,
behar duzun negarra
zure ahuleziatik

Emaidazu
zeuretik
zeure isiltasunez
ahotsa,
zure haserrez
irria,
zeure amarez
eman zaitez²⁸.

Hemen gainezarketa edo superposizio sentimental-existentzialak:

- 1) natura/ahulezia
- 2) isiltasuna/ahotsa
- 3) haserrea/irria

Olerkarisak *egoera* animikoak isladatzen diren karakterizazioen gainezarketaz jokatzeko du.

e) Metaforazko gainezarketak

Gainezarketa hauek, logikoki, iruditeriaren eremu zabalean ematen dira. Beraz, Z tipologiako metaforetan desplazamendu eta gainezarketa aunitz dago. Sinestesien kasuan nabariak dira jauziak zentzu batetik bestera. Hurrengo kasuan *zaborrari* dagokiona "garraxi kutzaz" esaten da, *garraisiak* zabor gisa eramangarri bailiran. Espresura hau guztiz metaforikoa da.

(27) "Zertarainoko tristura", op. cit. 59. or.

(28) "Emaidazu", op. cit. 93. or.

Hitzak bil itzak
 itzalak hitzak
 mila dituk...
 jaso dizkiate / basura boltsetan...
 Kargatu dituk
 garraxi kutxak
 begi ketsuak
 kamioi kaminoetan...²⁹

Zabor-boltsetan biltzen diren gauzak *bondakinak* dira (hots, *zakarrak*), ez noski, *garrasiak*. Hor olerkarisak ezarria hau litzateke: A *zaborra* (a¹ *espaloietan*, a² *boltsetan*, a³ *kamioetan*), B *hitza*, C *itzalak*, eta, bestalde, "garraxi kutxak", funtzio espre-sibo berezia egotziz.

3. A eta B arteko elkar tindaketa

Hirugarren prozedura, noski, lehenengo bien ondorioa da. Beraz, emozioen arloan gaitza gertatzen da muga analitiko berezgarriegia A eta B artean eraikitzea. Iruditeria klasikoan eta "arrazionalean" muga horiek egokiago egin zitezkeen (hots, XVI, XVII, XVIII. mendetako poesian), bainan XIX. mendeko erromantizismoaren sentimendu-oldea ezkerotziz hesiak apurtu, txikitu egin dira eta iruditeria "irrazionalaren" desmadre aberatsa eta joria etorri da (XX. mendean areagotuko dena).

Beraz, metaforen arloan A maila B mailaz tindatua sentituko da, eta B maila A mailaren kalitatez bestainbeste. Surrealismo gaitza saredura bitxiak eraikitzen ibiliko da mende honen zehar, eta Z mailako emozio-ondorioak bi mailen emaitzez ukituak egonen dira, logikoki. Emaitza onirikoen sareetan horrelako elkar tindaketa aunitz topa daiteke "tu desnudez se ofrece como un río escapando" pasarteon A maila (neskatxaren *bilustasuna* edo *desnudez*) *ibai* gisa (*como un río*) ulertzen da, eta, gainera, "escapándose" b¹, eta B-ren kalitateak A-ren mugimendu-sentsazioa busti eta areagotu egiten dute. Honela, pasarte poetiko baten A mailan a¹, a², a³, a⁴ sub-sailak badaude bere isladapen kualitatiboa islada daiteke B mailara (b¹, b², b³, b⁴ kasuetara), testu poetikoak aski paraleloak baldin badira. Guk Miranderen kasuan "haien beso luze-luzeek /niri eresiz zioستن /ziraun-poema samin bat" pasarteon b¹ zonaldearen gune *desantzezkoan* "Eresi poema ez-beso bezala" interpretatzen genuen, eta b² zonaldearen gune *antzeakoan* "eresiak *besoak* bezala luzatzean" ikusten³⁰.

Hau guztia izan da, bada, guk euskal poesia modernoaren irudi-ibilbidea azterterakoan atzeman duguna³¹. Gure egitekoa orri hauetan poeta zenbaitek, ohargabeki eta garaiko olde estetikoari jarraituz, eginikoa analizatzea izan da. Oraindik bada autore eta poesi-lan aunitz gure artean aztergai dena. Gure egitekoa, oraingoz, Aresti, Lasa, Lekuona eta Irastortzaren produziora mugatu da prestaturik dugun lan batean. Autore horietan guri interesgarri zaizkigun arloak *soilik* ukitu ditugu, beste

(29) "Mihiz josirik", op. cit. 39-40. or.

(30) Ikus honetaz gure *Miranderen Poesigintza*, II, 95-99. or. Toki horretan b¹ zonaldea *antzeko* bezala, eta b² zonaldea *desantzeko* gisa erabiltzen genuen.

(31) Olde irrazionaletik dabil euskal poesian ere J. M. Lekuonaren produzio zenbait, Eizagirre, Zabalera, B. Atxaga, eta gure produzio poetiko aunitz, batez ere, gure *Hitzak ebakitzean*, *Zortziko Hautsiak* *Lehenaren ur sakonetan* (Egan, 1981) eta *Aire neurtuak* poesi-liburuetan eman dugun gehiena. Azkenaldian, poesia modernoaz eman den antologia batzutan olde "irrazional" honi ez zaio behar bezalako garrantzirik eman.

ikusmira eta sakonketak ere zilegiak direlarik. Gure literaturaren historia sakontzeko ez dago beste biderik, alegia, sakonketa edo azterketarena baino; oster, gure artean garaile egon den partzialkeria hazitzen eta garatzen joan daiteke. Guztien onerako euskal literaturak lan monografikoak behar ditu ildo ziurrak egiteko. Gure gaurko eginkizuna euskal edergintzaren bide berriak sakontzea izan da. Helburu hori burutzea osoki lortu ez badugu ere, ahalegindu gara, behinpein.